


**VILLA IKUSKA**  
D MAILA

**ARBÓS MUSIKARIAREN PASEALEKUA 32**



**Pablo Zabaló, 1923**

#### **Deskribapena**

Villa hau Arbós Musikariaren pasealekuaren amaieran dago, eta eremu lau batean zehar zabaltzen da dagokion partzela, plataforma gainean altxatutako partzeletako desnibelik gabe alegia. Etxea simplea da, estilo neoeuskalduneko isurki biko estalkia du, hiru bao ardatzekin eta bi mailarekin batera, teilatupean espazio independenterik gabe. Lorategiarekiko harreman hirukoitza du, norabide banatan, sarrerako portxe nagusiarekin, bulegorako sarrera independentearekin, eta jangelatiko hirugarren irteerarekin. Horretaz gain, sukaldeak bere sarrera du, ate arkudun batez. Bolumen nagusiak hiru atal txiki zeuzkan inguruan, isurki bakarreko teilatuz hornituta. Gaur egun albo erantsi bat ikusten dugu beheko solairuan, bulegorako lehengo sarreraren ordean.

#### **D mailako babes erregimen espezifikoak**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: alboan erantsitako atala.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: zurezko elementuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.